



AZTERKETAK 34

Aurrekontuak, Errenta Bermatua eta Enplegu Plana Nafarroan

2017eko OTSAILA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Aurrekontuak, Errenta Bermatua eta Enplegu Plana Nafarroan

SARRERA	3
A) NAFARROAKO 2017ko AURREKONTUEN BALORAZIOA	3
1. GOBERNUAK EZ DU BENETAKO PARTAIDETZARIK ONARTU	3
2. UKO EGIN ZAIO NAFARROAKO AURREKONTU GAITASUNARI	3
3. GASTU PUBLIKOA EKONOMIA BAINO GUTXIAGO HAZI DA	4
4. AURREKONTUA ZOR PUBLIKOAK ETA ITZALPEKO BIDESARIAK BALDINTZATUA DAGO ..	6
5. GASTUA DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU	9
6. OSASUN ARLOKO GASTUA	9
7. HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA	11
8. ETXEBIZITZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA	13
9. AHT: LEHENBAILEHEN GELDIARAZI BEHARREKO DIRU XAHUKERIA	14
10. ATEA ZABALIK UTZI DA UGT, CCOO eta CEN ERAKUNDEEI FINANTZATZEN JARRAITZEKO	15
11. ONDORIOAK	16
B) ERRENTA BERMATUA:	
FISKALITATE ESKASAK BABES SOZIAL URRIA DAKAR	18
1. AGERTOKIA: MURRIZKETAK ETA GIZARTE LARRIALDIA	18
2. LEGE BERRIAREN NEURRI NAGUSIAK	20
3. ZER KOSTU EKONOMIKO DAUZKATE GOBERNUAK PROPOSATURIKO NEURRIEK?	23
4. NAFARROAKO GOBERNUAK EZ DU BETE AKORDIO PROGRAMATIKOAN HARTUTAKO KONPROMISOA	26
5. ONDORIOAK: FISKALITATE ESKASAK BALDINTZATUTAKO PRESTAZIO ESKASA	27
C) 2016-2019ko ENPLEGU PLANAREN	
ZIRRIBORROAREN BALORAZIOA	30
1. AURREKARIAK: NAFARROAN EZAGUTZEN DUGUN ENPLEGU-POLITIKA	30
2. 2016-2019ko ENPLEGU PLANAREN ZIRRIBORROAREN EDUKIA	33
3. ELAren PROPOSAMENAK ENPLEGURAKO	38

Gobernu aldaketa beharrezkoa zen UPN eta PSN ordezkatzeko duten erregimenaren politika neoliberaletan eta bezero-sarearekin bukatzeko.

Baina Gobernu aldaketa beharrezkoa den pausoa bada ere, ez da nahikoa politikak benetan aldatzeko.

Txosten honetan egungo Gobernuaren aurrekontu politika, gizarte-politika Bermatutako Errentaren balorazioarekin, eta enplegu-politika, Enplegu Planaren balorazioarekin, aztertuko ditugu.

A) NAFARROAKO 2017KO AURREKONTUEN BALORAZIOA

1. GOBERNUAK EZ DU BENETAKO PARTAIDETZARIK ONARTU

Nafarroako Gobernuak ez du deus egin gizarteak aurrekontu politikan gehiago eta hobeki parte har dezan. Iaz bezalaxe (egungo Gobernu berarekin), eta aurreko Gobernu guztietan, gizarte entitateek eta sindikatuok ez dugu aukerarik izan zergen eta aurrekontuen gaineko politika, gutxieneko baldintzetan, lantzeko eta eztabaidatzeko.

Aurten gauza bera gertatu da. Bide bakarra Kontseilu Ekonomiko eta Soziala da (CES), baina inola ere ez da bide egokia gizarte entitateek eta sindikatuok egiazki parte har dezagun.

Doi-doi astebeteko aurrerapenarekin egiten da Kontseiluaren deialdia. Aurrekontuen Aurreproiektuaren gaineko balorazio hutsa egiten da, eta kito, horixe da partaidetza guztia, eta ez du azalpenik ematen kontu-sailen zertarakoaz, denbora gehiago behar baita azterketa hori egiteko, eta ez dago egiazki eztabaidatzeko aukerarik. Gainera, behin bilera hori egin ondoren, Gobernuak ere ez du astirik eztabaidatzeko bileran sortzen diren iritzien eta proposamenen gainean, zeren Aurrekontuen Aurreproiektu hori hurrengo egun baliodunean bidali behar baita parlamentura (Kontseiluaren bilera urriaren 28an izan zen, eta aurrekontua azaroaren 1a baino lehen igorri behar zen parlamentura, hau da, urriaren 31n, astelehena).

Ezin daiteke inola ere esan hori sindikatuok aurrekontuen politikan parte hartzeko benetako bidea denik. Hurbilago dago propagandatik egiazko partaidetzatik baino.

2. UKO EGIN ZAIO NAFARROAKO AURREKONTU GAITASUNARI

Rajoyren Gobernuak ezarritako defizit muga (% 0,5 2017rako) onartu izanak baldintzatu du Nafarroako Gobernuko 2017ko aurrekontua.

Estatuak defizit-helburua ezartzen duenean, ez da izaten Madrilen eta Nafarroaren arteko aldebiko erabakia (hori ere ez), Rajoyren gobernuaren inposaketa baizik. Eta Nafarroako Gobernuak inposaketa onartzen du, ez du huraxe zalantzan jartzen.

Nafarroako Gobernuak uko egin dio aurrekontuen gaineko bere politika egiteari, uko egin baitio defizit publikoa Nafarroan bertan erabakitzeari. Horrek esan nahi du onartu den aurrekontu politikak ezin izanen duela behar adina handitu gastu soziala.

3. GASTU PUBLIKOA EKONOMIA BAINO GUTXIAGO HAZI DA

2017rako aurrekontuaren arabera, 4.022,9 milioi euro gastatuko dira (Abiadura Handiko Trenera bideratu den 1,25 milioi euro kendu ondoren; teoriar, dirutza hori Madrilgo Gobernuak itzuliko du; beraz, ez da egiazko gastua Nafarroako Gobernuarentzat).

Gastuak eurotan izan duen bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu 2017rako aurrekontuak 18,6 milioi gehiago gastatzea aurreikusi duela 2016an onetsitako aurrekontuak baino (hura 4.004,3 milioi euro izan zen, AHT kenduta), hau da, % 0,5 gehiago, eta 146 milioi gehiago (% 3,8) 2015eko gastua baino (3.877 milioi).

Azken urteotako bilakaerak erakutsi du gastuak gora egin duela (2016. eta 2017. urteetarako aurrekontuetako gastua); beraz, azken 5 urte honetan, 2012tik 2017ra, gastua 411,1 milioi eurotan handitu da.

NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOA* (MILIOIKA EUROTAN)

2012	2013	2014	2015	2016**	2017**
3.611,8	3.650,5	3.784,6	3.954,9	4.004,3	4.022,9

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

() AHTrako kontu-sailak urtealdi guztietarako deskontatu dira, dirutza horiek guztiak Estatuak itzuli beharko dituelakoan; beraz, ez dira egiazko gastuak nafar Gobernuarentzat.*

*(**)2016 eta 2017ko datuak aurrekontu orokorretik datoz.*

Aurrekontuan 2017rako dagoen gastua aztertzen badugu ekonomiarekiko, ikusiko dugu BPGaren % 20,3 dela, hau da, BPGaren % 0,4 puntu gutxiago gastatzea dago aurreikusia 2016an baino (69,4 milioi gutxiago). Bilakaera hori alderatzen badugu 2015ean egindako gastuarekin, aurrekontuak 0,7 puntuko partaidetza dauka ekonomian.

Aldiz, duela 5 urte urtetik hona izaniko bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu gastuak pisu handiagoa duela ekonomiarekiko; BPGaren 0,6 puntu gehiago (hau da, 132,2 milioi euro). Nolanahi ere, antzeko zenbakiak dira.

NAFARROAKO GASTU PUBLIKOAREN PARTAIDETZA BPGean* (%)


2012	2013	2014	2015	2016**	2017**
19,7	20,2	20,7	21,0	20,7	20,3

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

(*) AHTrako kontu-sailak urtealdi guztietarako deskontatu dira, dirutza horiek guztiak Estatuak itzuli beharko dituelakoan; beraz, ez dira egiazko gastuak nafar Gobernuarentzat.

(**)2016 eta 2017ko datuak aurrekontu orokorretik datoz

BPGaren BILAKAERA (MILIOIKA EUROTAN)



Iturria: IEN

4. AURREKONTUA ZOR PUBLIKOAK ETA ITZALPEKO BIDESARIAK BALDINTZATUA DAGO

- *2017ko aurrekontuaren % 9,6 zor publikoa ordaintzeko erabiliko da*

Nafarroako Gobernuak 387,2 milioi euro zorra ordaintzera bideratuko ditu (BPGaren % 2). Hau da, Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren % 9,6 bideratuko du zor publikoa ordaintzera, bai eta zorraren interesak eta gastuak ordaintzera ere. Gastu hori antzekoa da, adibidez, Eskubideen Sozialetako Departamentuaren gastuarekin (29,3 milioi gehiago dira). Halaber, esan dezagun gastu hori handiagoa dela Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren gastua baino, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuarena baino, eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren gastua baino.

Aurreikuspenen arabera, 529 milioi euro gastatuko dira zor publikoan 2016rako. Hau da, 2017an, 141,8 milioi euro gutxiago ordaintzea dago aurreikusia zor publikoan 2016an baino.

2012az geroztiko bilakaerak erakusten du 187,8 milioi eurotan igo dela urteko gastua zor publikoan (199,4 milioitik 387,2ra). Horrela, 2012tik hona, zor publikoa gastu osoaren % 5,5 izatetik, 2017an % 9,6 izatera pasatu da (2017an).

GASTUA ZOR PUBLIKOAN (MILIOIKA EUROTAN) 2012-2017

2012	2013	2014	2015	2016	2017
199,4	299,4	383,9	414,3	529,0	387,2

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Ordainketa hori hein batean zorraren interesari doakie, bai eta zorrarekin zerikusia duten gastuei ere. Zehazki, 2017an, 94,2 milioi euro gastatuko dira zorraren interesetan nahiz gastuetan, hau da, 258.158 euro gastatuko dira eguneko, finantza-entitateei interesak eta gastuak ordaintze aldera.

- *Zor publikoa gero eta handiagoa urtetik urtera*

Azken urteotan, hamaika murrizketa eta doikuntza izan dira, defizitari muga jarri zaio, zeharkako zergak handitu dira, neurri asko hartu dira, baina hala eta guztiz ere, zor publikoa handitzen ari da urtez urte.

Ez da gauza berria esatea neurri horiek zer ekarri duten, hots, areagotu da desberdintasuna, areagotu ere aberastasunaren banaketa bidegabea


goi errenten nahiz enpresen mesedetan, eta bere horretan iraunen du, politikak aldatzen ez diren bitartean.

Hala ere, Nafarroako zor publikoa 3.321,8 milioi euro da 2015eko abenduan, hau da, 124,6 milioi euro gehiago urtebete lehenago baino, eta 2.453,7 milioi gehiago 2008ko abenduan baino.

Nafarroako zor bizia 3.783,9 milioi euro da 2016ko bigarren hiruhilekoan (argitaratu den azken datua). Beraz, 2015etik hona, zorra 462 milioi eurotan handitu da. Hala ere, zorraren hazkunde izugarri horrek ez du esan nahi 2016a horrela bukatuko denik, zeren 2016 bukaeran izan baitaitezke zor epemugarik gehien, eta baliteke zenbaki hori jaistea (gogoratu behar da 529 milioi euro jarri zirela 2016an aurrekontuetan, zorra ordaintzeko).

Nolanahi ere, 2016an Nafarroako zor publikoa jaisten bada ere, ez da inolako aldaketa nabarmenik izanen haren bolumenean. Beraz, 2017an zor publikora diru gutxiago bideratuko bada ere 2016an baino (529 milioitik 387,2 milioira), ez da izanen zor publikoa jaitsi delako, baizik eta, nagusiki, zorraren egiturak berak eta haren epemugek eraginda.

NAFARROAKO ZOR BIZIA (MILIOIKA EUROTAN) 2008-2017



Iturriak: Espainiako Bankua

- *Zor publikoak eta itzalpeko bidesariak 1,3 euroko gastua eragingen dute eguneko, 2017an*

Nafarroako Gobernuak obra handiak ordaintzeko erabili duen bide bat itzalpeko bidesaria delakoa da (Nafarroako ubidea edota A-21 nahiz A12 autobiak). Hau da, enpresa pribatu batek obra eraiki eta finantzatzen du, eta Gobernuak obra horren erabilera ordaintzen du. Horrela, administrazioa ez da zorpetzen epe laburrean eta kontuak mozorrotzen ditu, baina epe luzera gastua askoz ere handiagoa da.

2017an 85,9 milioi euro erabiliko dira itzalpeko bidesaria ordaintzeko, hau da, 2016an baino 7,5 milioi gehiago. 2012tik hona, gastu hori 18,5 milioi eurotan igo da (67,4 milioitik 85,9ra).

GASTUA ITZALPEKO BIDESARIAN (MILIOKA EUROTAN) 2012-2017

2012	2013	2014	2015	2016	2017
67,4	67,0	65,4	68,2	78,4	85,9

Iturriak: Nafarroako Gobernua

Hortaz, zor publikoa eta itzalpeko bidesariaren gastua batzen baditugu, 2017an 473,1 milioi euro bideratuko dira horretara, hau da, aurrekontuaren % 11,8. Bestela esanda, 1,3 milioi euro ordainduko dira eguneko.

Hortaz, zor publikoa eta itzalpeko bidesariaren gastua handitu direnez, askoz diru gutxiago dago gastu publikoaren gainerako ataletara bideratzeko. Horrela, 2017an, gastu publikoa, behin zor publikoan eta itzalpeko bidesarietan egingo den gastua kenduta, 3.540,4 milioi euro izango da.

GASTUA ZOR PUBLIKOAN ETA ITZALPEKO BIDESARIAN (MILIOIKA EUROTAN) 2010-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Aurrekontua guztira	3.611,8	3.650,5	3.784,6	3.877,0	4.004,3	4.022,9
Zorra eta itzalpeko bidesaria guztira	266,8	366,3	450,3	482,5	607,4	473,1
Aurrekontuaren %	%7,4	%10,0	%11,9	%12,4	%15,2	%11,8
Aurrekontua zorrik eta itzalpeko bidesaririk gabe	3.344,9	3.284,1	3.334,3	3.394,5	3.396,8	3.549,8

Iturriak: Nafarroako Gobernua

5. GASTUA DEPARTAMENTUZ DEPARTAMENTU

Aurrekontuetan Osasun Departamentura bideratu da dirurik gehien; 1.041,6 milioi euro, zehazki (aurrekontu guztiaren % 25,9). Ondotik, Ogasun eta Finantza Politikako Departamentura; 963,7 milioi euro (horietarik, 387,2 zor publikora bideratuko dira).

Dirurik gutxien Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentura bideratuko da (19,8 milioi, % 0,5), eta ondotik, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentura (45,7 milioi, % 1,1).

Garapen Ekonomikoko Departamentua ere aipatu behar da (223,1 milioi), haren barnean itzalpeko bidesarira bideratzen den dirua baitago (95,3 milioi); hortaz, Departamentuaren benetako gastua 127,8 milioi euro izanen da.

GASTUA DEPARTAMENTUEN ARABERA

	Presupuesto	%/Total	% PIB
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne eta Justizia	303,7	7,6	1,5
Ogasuna Eta Finantza Politika	963,7	24,0	4,9
Hezkuntza	635,5	15,8	3,2
Osasuna	1.041,6	25,9	5,3
Landa Garapen, Ingurumen, Toki Ad.	357,2	8,9	1,8
Garapen Ekonomikoa	221,8	5,5	1,1
Eskubide Sozialak	416,6	10,4	2,1
Kultura, Kirola eta Gazteria	45,7	1,1	0,2
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	19,8	0,5	0,1
Nafarroako Kontseilua	0,4	0,0	0,0
Parlamentua	16,9	0,4	0,1
Guztira (AHTik Gabe)	4.022,9	100,0	20,3

Iturriak: Nafarroako Gobernua

6. OSASUN ARLOKO GASTUA

2017rako aurrekontuak 1.041,6 milioi euroko gastua jaso du Osasun Departamenturako; hau da, 2016rako aurreikuspenak baino 53,2 milioi gehiago. BPGren % 5,3 da; 2016an baino 0,2 puntu gehiago.

2012tik hona, ia 100 milioi eurotan handitu da (941,4 milioitik 1041,6 milioi eurora). BPGarekiko gastua kontuan hartuta, 0,2 puntu handitu da, PBGaren % 5,1etik % 5,3ra.

OSASUN ARLOKO GASTUA (MILIOIKA EUROTAN) 2012-2017


2012	2013	2014	2015*	2016*	2017
941,4	891,8	917,5	934,4	988,4	1.041,6
%5,1	%4,9	%5,0	%5,0	%5,1	%5,3

Iturriak: Nafarroako Gobernua

Europako lurraldeekin alderatuta, Nafarroak osasun publikoan egiten duen gastu maila apalenetakoa da, Zehazki, 7 estatuk soilik gastatzen dute gutxiago osasunean Nafarroak baino, 2014ko Eustaten datuen arabera (eskura dauden azkenak): Estoniak, Hungariak, Luxenburgok, Greziak, Poloniak, Errumaniak eta Letoniak bakarrik bideratzen dute BPGaren portzentaje apalagoa osasunera Nafarroak baino.

Urte hartan, Nafarroak BPGaren %5 bideratu zuen osasun publikora; baina osasunean egindako gastu publikoaren batez bestekoa BPGaren %7,2 izan zen (2,2 puntu gehiago). Horrek esan nahi du Nafarroan 402,2 milioi euro gehiago bideratu beharko zirela gastatu zirenak baino (917,5 milioi euro) 28ko EBeko batez bestekora iristeko.

Deigarria da baina Espainiar Estatuak berak BPGaren ehuneko handiagoa bideratzen du osasunera (BPGaren %6,1, 2014an; hau da, proportzioan, 201,1 milioi euro gehiago Nafarroak baino).



Iturriak: Eurostat, IEN, Nafarroako Gobernua

7. HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

2017an, 635,5 milioi euroko gastua aurreikusia dago hezkuntzarako, 2016an baino ia 34,3 milioi gehiago (601,2 milioi). 2010etik hona izaniko bilakaerari erreparatzen badiogu, ordea, 2017an 33,1 milioi euro gutxiago bideratu dira, hau da, 2017ko aurrekontuak oraindik ere ez ditu murrizketak leheneratu.

**HEZKUNTZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA
(MILIOIKA EUROTAN, BPGaren %) 2012-2017**


2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016*	2017*
668,6	634,7	553,6	563,2	570,4	584,5	601,2	635,5
%3,6	% 3,4	%3,0	%3,1	%3,1	%3,1	%3,1	%3,2

Iturriak: Nafarroako Gobernua

BPGrekiko gastua aztertzen badugu, 2017rako aurrekontua BPGaren % 3,2 da, eta 0,1 igo da azken urteokin alderatuta. Hala ere, 2010etik hona, hezkuntzaren pisua BPGaren % 0,4 murriztu da.

Hezkuntzarako aurrekontuaren zati handi bat ikastetxe pribatuak diruz laguntzeko erabiltzen da. Zehazki, 635,5 milioiko dirutzatik, 125,6 milioi euro xede horretara bideratuko dira, hau da, % 19,8.

Europako lurraldeekin alderatuta, ikusten da 2014an BPGaren % 4,9 bideratu zela batez beste hezkuntza arloko gastu publikora 28ko EBN; hau da, Nafarroan baino 1,8 gehiago BPGari dagokionez. 28ko EBN adinako ahalegina egitera, Nafarroako Gobernuak 329,1 milioi euro gehiago bideratu beharko zituen bideratutakoak baino. Hemen ere deigarri zaigu Espainiar Estatuak berak diru gehiago gastatzea (BPGaren % 4,1) Nafarroak baino hezkuntzan (hau da, 182,8 milioi euro 2014an). Hortaz, hezkuntza arloko gastu publikora BPGaren zatirik txikiena bideratzen duen lurraldea gara Errumaniaren ondotik (% 3).



Iturriak: Eurostat, Nafarroako Gobernua, IEN

8. ETXEBIZITZA ARLOKO GASTU PUBLIKOA

Etxebizitza politika Eskubide Sozialetako Departamentuan kudeatzen da; zehazki, 41,6 milioi euro bideratu ditu lurzorua eta etxebizitza kudeatzera. Atal honen barruan, etxebizitza jarduketak egiteko diru-laguntzak eta sorospenak daude (25,7 milioi euro), bai eta etxebizitzaren alokairu publikorako diru-laguntzak ere (12,7 milioi euro); 38,4 milioi euro guztira.

Azken urteotako bilakaerak erakusten du urtetik urtera gero eta gutxiago gastatzen dela etxebizitzan. 2017an gastu txikixeagoa aurreikusi da 2016an baino (0,1 milioi gutxiago), baina 2012tik hona, gastua 39,3 milioi eurotan murriztu da.

**GASTU PUBLIKOA ETXEBIZITZA JARDUKETETAN
(MILIOIKA EUROTAN, BPG%) 2012-2017**

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Diru-laguntzak etxeak alokatzen dituztenentzat	9,6	10,4	12,3	11,7	13,0	12,7
Diru-laguntzak eta sorospenak etxebizitza jarduketetarako	68,1	33,6	36,0	24,9	25,5	25,8
Etxebizitza jarduketak guztira	77,7	44,0	48,3	36,6	38,5	38,4
BPGaren %	0,42	0,24	0,26	0,19	0,20	0,20

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

9. AHT: LEHENBAILEHEN GELDIARAZI BEHARREKO DIRU XAHUKERIA

Nafarroako Gobernuak ez dio oraindik uko egin AHTri. 2017rako aurreikusia dagoen aurrekontua 1,25 milioi bada ere, proiektuari ez zaio uko egin.

2016an eta 2017an sekulako murrizketa izan du, baina ez AHT alde batera uzteko erabaki politikoak eraginda, ezta gutxiago ere. Kontu ekonomiko hutsek eraginda baizik. Horrela, Castejon eta Iruñea arteko tarte geldiarazita ere, proiektuari eusten ari zaio Etxabakoitz aldean, hau da, AHTren geltoki berria aurreikusia dagoen aldean.

Tamalgarría da, zeren egiaztatu baita obra ez dela ekonomikoki bideragarria (gainera, sozialki ere ez da bideragarria, eta bai erabat kaltegarria ingurumenarentzat), eta hala ere, Nafarroak behar ez duen proiektua bizirik mantentzen da.

Proiektu bideraezin hori abian jarri zenetik, 84,2 milioi euro gastatu dira, Nafarroako kontu orokorretan eta aurrekontu orokorretan jasota dagoenaren arabera.

GASTU PUBLIKOA AHTean (MILIOIKA EUROTAN) 2010-2017*

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
5,1	1,4	17,1	29,2	19,0	10,2	1,0	1,25

Iturriak: Nafarroako Gobernua

* 2016 eta 2017ko datuak aurrekontu orokorretik datoz; aurreko urteetako datuak, berriz, Nafarroako kontu orokorretatik.

Kontuen Ganberak berak ere Nafarroako Gobernuari eskatu dio erabaki bat hartzeko obra horri buruz.

Kontuen Ganberak, gainera, adierazi du osagabea eta zaharkitua dagoela Nafarroako Gobernuak Estatuarekin sinatutako hitzarmena AHT garatzeko. "Osagabea, zeren Castejon-lruñerria tarteari soilik baitagokio, eta tarte hori da epeak eta dotazio ekonomikoak zehaztuta dituen bakarra. Eta zaharkitua dago, zeren tarte horretako kostu azterlanek bidaiarien garraioa bakarrik hartzen baitzuten kontutan; eta korridore guztia salgaietarako ere proiektatu da, BEZaren aldaketarengatik, eta Ingurumen Gaineko Eragin Adierazpenaren eskakizunak kontuan ez hartzeagatik".

Gastuari dagokionez, Kontuen Ganberak adierazi du Nafarroak "86 milioi gastatu dituela AHTean; 81, inbertsioetan, eta 5 milioi, berriz, finantza-gastuetan; azken horiek ez ditu ADIFek itzuliko, hitzarmenarekin bat".

"Estatuak orain arte Foru Administrazioak aurreratutako dirutzaren 35,6 milioi itzuli ditu. Beraz, 44,5 milioi itzultzeko ditu Nafarroari".

10. ATEA ZABALIK UTZI DA UGT, CCOO eta CEN ERAKUNDEEI FINANTZATZEN JARRAITZEKO

2017rako aurrekontuak ez du zuzeneko hitzarmenik jaso UGTekin eta CCOOekin. CNEekin aldiz, bi hitzarmen daude, bakoitza 360.000 eurokoa (720.000 euro, guztira).

Hala ere, aurrekontuan berezko kontu-sailik ez badago ere UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmenak egiteko, Nafarroako Gobernuaren asmoa da bi erakunde horiek eta patronala finantzatzen jarraitzea.

Horrela, kontu-sail batzuen izena aldatu bada ere, xedea da bi sindikatu horiek oraindik ere diru publikoekin finantzatzea.

Horren haritik, aurrekontuan jasota dauden kontu-sail batzuetan ate bat utzi da zabalik elkarrizketa sozialean parte hartzen duten erakundeak finantzatzeko.

CENekiko hitzarmenei dagozkien kontu-sailez gain, Eskubide Sozialetako Departamentuaren kontu-sail batzuk aipatu behar dira, hots, orientazio programetarako, eta genero-berdintasunaren aldeko politikeetarako. Kontu-sail horiek ez dira izendunak, eta esleipena oinarri lotuta egonen da. Baina ohartarazi beharra dago, efektu praktikoetatik begiratuta, berdin diola finantzaketa iristeak hitzarmen izendunen bidez edota horretara zuzendutako oinarrien bidez.

Gauza bera esan behar da Garapen Ekonomikoko Departamentuak atera duen kontu-sail batekin, hau da, lan arriskuen prebentziorako proiektuei buruzko kontu-sailarekin, hain zuzen. Erran nahi baita, lan istripuak gora doazen honetan, eta lanetik eratorritako heriotzak gora doazen honetan, Nafarroako Gobernuak lehentasuna eman nahi diola elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenen finantzaketari, prebentzio politikaren gainetik.

Orientazio programetarako laguntza. Konferentzia sektoriala.	1.700.000
Konpentsazioa, prospekzio jardueretan parte hartzeagatik	180.000
CEN hitzarmena enpresa-zuzendarien programetarako	360.000
CEN hitzarmena, profil profesional estrategikoak garatzeko eta enpresetan sartzeko	360.000
Lan arriskuen prebentzio proiektuak	1.100.000

Iturria: Nafarroako Gobernuak

11. ONDORIOAK

- *Nafarroako Gobernuak ez du deus egin gizarteak aurrekontu eta zerga politikan parte hartzea bermatzeko.*

Orain arte aplikatutako politika aldatu nahi bada, politikaren demokratizazioan jo behar da aurrera. Demokratizazioa benetakoa izanen bada, gizarte entitateei eta sindikatuari partaidetza handiagoa eman behar zaie. Beharrezkoa da Parlamentuan ordezkariarik ez duten erakundeek politiken prestaketan parte hartzeko aukera izatea.

Erabat da kritikatzekoa Nafarroako Gobernuak horretarako egin duen bilera ofizial bakarrean (CES) behar bezalako denbora tarterik ez uztea aurrekontua sakon aztertzeko. Gainera, bilera horren ondotik, Gobernuak ere ez du denborarik aurrekontuari egiten zaizkion kritikak eta ekarpenak kontuan hartzeko.

Nafarroako Gobernuaren helburua balitz aurrekontua gizarte erakundeekin eta sindikatuarekin eztabaidatu eta lantzea, ez luke horrela jokatu. Borondate politikoa behar da, eta borondate hori ez da aldatu, Gobernuak aldatu bazen ere.

Gobernuaren ezaugarria izaten ari da biderik ez ematea gizarteari politikan parte hartzeko. Gobernuak gero eta gehiago erreparatzen die erregimenaren elkarriketa sozialaren formula zaharrei, eta gero eta gutxiago, aldiz, gizarte aldaketa nahi dutenei.

- *Aurrekontua ez da nahikoa, eta ekonomia baino gutxiago hazi da*

Aurrekontua igo da, baina ekonomia baino apalago (hau da, 2016an BPGaren % 20,7 izan da, eta 2017an, aldiz, % 20,3). Erran nahi baita, Administrazio Publikoaren pisua txikiagoa da ekonomiarekin alderatuta.

Datu horrek erakusten du aurrekontuaren hazkundera (eurotan) nahikoa ere ez dela izan ekonomiaren bilakaeraren gaineko pisua mantentzeko.

- *Europar Batasunak osasunean eta hezkuntzan bana beste gastatzen duenaren oso azpitik*

Nafarroak oinarri-oinarrizko arloetan gastatzen duena (hau da, osasunean eta hezkuntzan) asko edo gutxi ote den neurtze aldera, gastu maila Europako lurraldeetan gastatzen denarekin alderatu behar da. Eta alderaketa hori egin behar da planteatzen diren helburuen arabera, hau da, arlo horretako estaldura publikoa hobetu nahi baldin bada, estaldurarik onena dagoen lurraldeei erreparatuko beharko zaie, eta hori, hein handian, Europar Batasuneko estatuetan gertatzen da. Aldiz, dagoena ontzat jo nahi bada eta propaganda hutsa egin, Nafarroako estaldura alderatzen jarraitu daiteke osasunean eta hezkuntzan estaldura apalagoa duten lurraldeekin.

Beraz, aldaketa sozialerantz jotzeko, Europako gastu mailarekin dagoen aldea erakustea ezinbestekoa da; Nafarroak 917,5 milioi euro gastatu beharko bailituzke osasunean, eta 329,1 milioi euro hezkuntzan, Europar Batasuneko batez besteko gastura iristeko.

- *Zorrak eragotzitako aurrekontua*

2017an 473,1 milioi euro gastatuko dira zor publikoan eta itzalpeko bidesarian, haien jatorria edo legitimitatea inola ere baloratu edo zalantzan jarri gabe.

Nafarroako zor bizia % 335,8 igo da 2008tik hona, harik eta 3.783,9 milioi eurora bitarte 2016ko erdialdean.

Zorraren arazoari aurre egin behar zaio, zorraren herritar auditoriaren ikuspegitik. Gero eta premiazoagoa da gogoeta egitea zorraren legitimitateaz, eta hura itzultzeaz.

- *Uko egin zaio nahikoa ez den fiskalitate bidegabea aldatzeari*

Nafarroako Gobernuak eta hura sostengatzen duten alderdiek uko egin diote fiskalitatea aldatzeari, eta fiskalitate hori errenta altuek eta enpresek diseinatu dute beren interesen alde. Aurreko urtean onetsitako zerga erreforma ez da inola ere aski (erreformarekin 44,2 milioi euro gehiago biltzea aurreikusia dago 2016an, eta Europako batez bestekoarekin alderatuta, 1.800 milioi euroko aldea dago), eta erreforma horrekin iduri du betetzat jo dela Akordio Programatikoa.

Ez da aldaketa sozialik izanen, ez bada fiskalitate bidegabea aldatzen, ez baita inola ere nahikoa aldaketa sozialari ekiteko.

- *Erantzukizun politikoa*

Aldaketa sozialaren bidean behar adina aurreratzen ez duten aurrekontuak dira, eta erregimenaren aldeko erakundeentzat pribilegioak dauzkaten aurrekontuak. Bada, aurrekontu horiek onestearen erantzukizuna ez

dagokio bakarrik Nafarroako Gobernuari, baita gobernua sostengatzen duten lau alderdiei ere.

Beharrezkoa da alderdi horiek aukeratzea ea zer politika mota nahi duten Nafarroarentzat, hau da, erregimenari pribilegioak ematearen aldekoa, edo aldaketa sozialaren aldeko politika egitea.

Oraindik ere badute aldaketak egiteko aukera, Parlamentuko tramitazioan aurrekontu sozialagoak bermatze aldera, eta Nafarroako aurreko erregimenaren politika klientelarrari erantzuten dioten programak kentze aldera.

B) ERRENTA BERMATUA: FISKALITATE ESKASAK BABES SOZIAL URRIA DAKAR

Nafarroako Gobernu berriak Gizarteratze Errenta aldatzeko eta gizarte babesa handitzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hori Gobernuari eusten dioten lau alderdiek sinaturiko akordio programatikoa dago jaso, eta horren arabera, aldaketa hori aurreneko sei hilean egin beharra zegoen.

Urte bat eta erdi pasa ondoren Nafarroako Parlamentuak Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako eskubideak arautzen dituen Lege berria onartu du. Lege berri honek orain arteko prestazioaren izena ere aldatu du, eta aurrerantzean, Errenta Bermatua esanen zaio.

1. AGERTOKIA: MURRIZKETAK ETA GIZARTE LARRIALDIA

a) Arauen historia: mobilizazio bidez lortutakoa murriztu zenekoa

1999an, 9/1999 Foru Legeak Oinarrizko Errenta ezartzeko betebeharra finkatu zuen. Haren zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren % 80 izanen zen, eta Nafarroan 2 urtez bizi izatea eskatzen zuen. Dena den, prestazio horren arauketa garatu zuen 120/1999 Foru Dekretuak zenbatekoa gutxieneko soldataren % 85en finkatu zuen.

Lege hori gizartearen mobilizazioari esker lortu zen. Izan ere, Herritar Legegintza-Ekimen batek eta greba orokor batek Administrazioan 35 orduko lanaldia arautzea eta Oinarrizko Errenta ezartzea ekarri zuen.

2008an, Lege hori aldatu zen; hots, Oinarrizko Errentaren zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 izatea ezarri baitzen, eta Nafarroan 12 hilabetez bizi beharra.

Prestazioaren aldaketarik handiena 2012an iritsi zen ordea, Gobernuan UPN eta PSN zeudela. Departamentua PSNren ardurapean zegoen, eta murrizketa izugarria bultzatu zuen, prestazioaren izena bera aldatuta, Oinarrizko Errentatik Gizarteratze Errentara (1/2012 Foru Legea).

Aldaketa horren ondorioz, ezabatu egin zen lanbide arteko gutxieneko soldataren erreferentzia (hori aurrekontu aldaketen kontura geldituz), prestazioa murriztu egin zitzairen administrazio-egoera irregularrean zeudenei, gehienez 24 hilabetez jasotzeko epea ezarri zuen, onuradunentzako betebeharrak eta zehapenak handitu zituen, eta abar. Azken buruan, zenbatekoa murrizteko bidea ireki, eta prestazioa jasotzeko aukera zaildu eta eragotzi zuen.

Hala ere, Gizarteratze Errentari buruzko Legeari bi aldaketa nabarmen egin zitzaizkion: bata, 2013ko azaroan PSN-k bultzaturikoa (gainontzeko oposizioak nahi zuen aldaketa handiagoa saiesteko), eta bestea, berriz, 2015eko urtarrilean oposizioak bultzatutakoa. Biak ere izan ziren PSN Nafarroako Gobernutik egotzia izan ondoren, hau da, oposiziora itzuli ondoren.

Aldaketa horiek prestazioaren estaldura handitu zuten zenbait alderditan (besteak beste, errenta jasotzeko gutxieneko adina 25etik 18 urtera jaitzi egin zen), prestazioaren zenbatekoa handitu zen (berriz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren erreferentzia hartu zen, eta zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren 100etik aurrera kokatu zuen pertsona bakarreko familia-unitateentzat), prestazioa jasotzeko epealdia 6 hiletik 12ra luzatu zen (gehienez, 36 hilabetez), etab.

Hitz batez, gizartearen mobilizazioak prestazio horren gaineko araudia eragin zuen, Oinarrizko Errenta abian jartzea lortu baitzen. Gero, aipatzekoak dira 2012an UPN eta PSNren gobernuak egin zizkion murrizketa latzak, eta horren ondorioz, prestazioa askoz ere jende gutxiagorengana iristen da (baina 2012 ondoko aldaketek murrizketa horiek arintzeko xedea izan dute).

b) Nafarroako gizarte egoera ataka gaiztoan

- 7 urtean, % 68,6 gehiago dira pobrezian erortzeko arriskuan edo gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden pertsonak.

AROPE (At-Risk-Of Poverty and Exclusion) adierazlearen arabera, Nafarroako biztanleriaren % 14,5 pobrezian eta gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dago. Adierazle horrek dirutan oinarriturik neurtzen du pobrezia, baina beste alderdi batzuekin osatuta, eta errenta-faktoreak (pobrezia erlatiboa), gabezia material larria, eta lanaren intentsitate apala konbinatzen ditu. Horrenbestez, 2008az geroztik, pobrezia edo gizarte bazterketaren arrisku tasa % 68,6 igo da, 2008ko % 8,6tik 2014ko % 14,5era.

Pobrezia arriskuari begiratzen badiogu (diru balioen arabera), ikusiko dugu Nafarroako biztanleriaren % 11,9 pobrezia atalasearen azpitik

dagoela 2014an. Ehuneko hori bikoiztu egin da 2008tik hona, urte hartan tasa hori % 5,9 baitzen.

POBREZIAN ERORTZEKO ARRISKUAN DAGOEN BIZTANLERIA (%) NAFARROA 2014

	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008
Pobrezian edo gizartean bazterturik gelditzekeo arriskuan (AROEPE)	14,5	14,5	12,0	13,1	13,8	10,4	8,6
Pobrezia arriskuan	11,9	9,9	7,0	8,1	10,7	7,8	5,9

Iturria: INE, Bizi-baldintzei buruzko inkesta 2014

- Langabeen erdiek baino gehiagok ez dute inolako langabezia prestaziorik jasotzen.

Langabeen % 52,8k ez dute jasotzen inolako langabezia prestaziorik. Portzentaje hori gora eta gora doa azken hilabete eta urteotan, eta ez dirudi egoera aldatuko denik. Nafarroan, langabezia izena emandako ia 21.000 lagunek ez dute jasotzen inolako langabezia prestaziorik. Eta 4tik bakar batek jasotzen du kotizaziopeko prestazioa (% 26,5), eta jada % 20,7 dira kotizazio gabeko prestazioa jasotzen dutenak (426 euro).

Beraz, 2008tik hona, % 31,6tik egungo % 52,8ra igo da inolako langabezia prestaziorik jasotzen ez dutenen ehunekoa. Aldiz, kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenen ehunekoa % 48,6tik % 26,5era pasatu da.

Bestalde, urtez-urte langabezia prestazioetan egindako gastua murriztu egin da. Eta horri langabe kopurua handitu izana gehitu behar zaio (23.942tik 39.282ra, 2008tik 2016ra uztailean). Hortaz, 2008tik hona, 790 eurotik 470 eurora murriztu da batez beste langabe bakoitzeko gastua.

2. LEGE BERRIAREN NEURRI NAGUSIAK

Lege berriak nagusiki bi eskubide jorratu ditu: batetik, gizarteratzeko eskubidea, eta bestetik, Errenta Bermatua arautzen du, izen hori hartu baitu orain arte Gizarteratze Erreta deitutakoak (eta lehenago, Oinarrizko Errenta).

Honatx Errenta Bermatua arautzen duen Legeak dakartzan alderdi nagusiak:

- *Gizarteratzeko eskubidea*

Lege honek gizarteratzeko eskubidea aitortzea aurreikusten du Nafarroan bizilekua izan eta gizarte bazterketaren egoeran dauden pertsona guztiei. Hartara, Administrazioaren ardura izanen da pertsonen bermatzea

gizarteratzeko prozesu horretan laguntza jasotzeko eskubidea, eta horretarako, plan estrategikoak abian jartzea aurreikusi da.

· *Errenta Bermatua*

Prestazio ekonomikoa hau "oinarrizko beharrak aserik ez dituzten pertsonen zuzenduta" dago. Errenta subsidiarioa da, eta beharrezkoa izan da eskubiderik ez izatea bestelako errentarik eta baliabiderik jasotzeko.

Honax besteak beste zer baldintza bete behar diren prestazioa jasotzeko:

- 18 urtetik gorakoa izatea (orain arteko Gizarteratze Errentak ere gutxienez 18 urte izatea exijitzen zituen, jasandako azken aldaketak medio, hasieran 25 urte eskatzen zituen), baina 18 urtetik 24 urtera bitartekoa izanez gero, gainera "eskatzaileak bi urte gutxienez eraman behar ditu bere kabuz bizitzen", "ulertuko da bere kabuz bizi izan dela Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erregimen batean, edozeinetan, alta emanik egon baldin bada gutxienez urtebetez".

Hau da, 24 urtetik beherakoei eskatzen zaie gutxienez urtebetez kotizatu izana beren kabuz bizitzen eman behar izan dituen bi urteetan.

Betebehar horrek jende asko uzten du kanpoan. Izan ere, egungo lan egoeran eta egungo nahiz azken urteotako langabezia maila handiak eraginda (bereziki jende gazteena jo duena), prestazio horretatik kanpo geratuko dira beren oinarrizko beharrak aserik ez dituzten pertsona asko.

65 urtetik gorakoek ere jaso ahal izango dute Errenta Bermatua, orain arteko Gizarteratze Errenta ez bezala.

- Azken 2 urtean Nafarroan bizitzea; urtebetez, familia-unitatean adingaberik bada. Betebehar horren eraginez behar dagoen jende asko ere eskubide horretatik kanpo geratuko da.
- Gizarteratze Errentak ere bi urtez Nafarroan bizitzea exijitzen zuen, eta gainera "legez" estatuko lurraldean bizitzea. Bermaturiko Errentak ez du azken betebehar hau eskatzen.
- Zenbatekoa. Honako eskala honen arabera kalkulatu da, eta kendu beharko dira unitate jasotzaileak dituen diru-sarrerak. Guztira jasoko da honako eskalan ezarritako zenbatekoaren, eta familia-unitateak erabilgarri dituen hileko diru-sarrera konputagarrien balioaren arteko kenketaren emaitza.

Zenbateko hori honela eguneratuko da: Nafarroako KPlaren igoera eta Nafarroako batez besteko soldaten bilakaera zein diren, haietako handienarekin, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Familia-unitatea	Baliokidetasuna	Guztira eurotan
Pertsona 1	1	600
2. pertsona	+ 0,35	810
3. pertsona	+ 0,25	960
4. pertsona eta hortik gora	+ 0,15	1.050

Errenta berriak murrizketa garrantzitsua eragin dio pertsona bakar batek osaturiko familia-unitateei, orain arte 655,2 euro baitzituzten bermatuak hileko (hau da, lanbide arteko gutxieneko soldataren baliokidea). Prestazio berriarekin, ordea, haien diru-sarrera bermatuak 600 eurora jaitsi dira (55,20 gutxiago). Esan behar da gaur egun familia-unitate jasotzaileen ia erdiak direla pertsona bakar batek osatuak.

Handitu da, ordea, bi pertsonak edo gehiagok osaturiko familia-unitateendako zenbatekoa, baina igoera hori txikiagoa da bi kideko unitateentzat, honako taula honetan ageri den bezala. Hau da, jaitsi egin zaie prestazioa pertsona bakarreko familia-unitateei, bi pertsonak edo gehiagok osaturiko gainerako familia-unitateei igotzeko.

Zenbat pertsona familia-unitatean	Gaur egun	Proposamena
1	655,2	600,0
2	786,2	810,0
3	851,8	960,0
4	917,3	1.050,0
5	982,9	1.140,0
6 edo +	982,9	1.200,0

Bermaturiko Errentaren Legea aldatu ez balitz, pertsona bakarreko unitateen prestazioa 655,2 eurokoa izatetik (aurreko prestazioaren kopurua) 707,6 eurokoa (14 ordainketatan) izatera pasako litzateke 2017an. Honek suposatzen du bere garaian salatutako murrizketa are handiagoa izango dela.

Beraz, Bermaturiko Errentaren legea onartu izanak pertsona bakarreko unitateek 107,6 euroko murrizketa jasatea suposatzen du, eta 2 pertsonetako unitateek jasango duten murrizketa 39,1 eurokoa izango dela. Hau da, lege berri honek 3 edo pertsona gehiagok osatzen dituzten unitateek diru gehiago jasotzea suposatuko du soilik.

Pertsonak	Aurreko araudia		Bermaturiko Errenta Egungo kopuruak
	Aurreko kopuruak	2017ko gutxieneko soldataren igoera ezarrita	
1		655,2	707,6 600,0
2		786,2	849,1 810,0
3		851,8	919,9 960,0
4		917,3	990,6 1.050,0
5 edo +		982,9	1.061,4 1.140,0

Lege honek dakarren beste aldaketa bat orain arteko Legeak ezarritako honako muga hau kentzea da: helbide berean bi familia-unitate edo gehiago baldin badaude, gutzira ematen diren prestazioen batura ezin izanen dela izan familia-unitate bakar bati dagokion zenbatekoa halako eta erdia baino gehiago.

- Prestazioaren iraupena 12 hilabete da, luzagarria, huraxe jasotzeko eskubidea eragiten duen premia egoerak dirauen bitartean. Orain arte, gehienez 36 hilabete ziren, baina hori ezabatu egin da.
- Enpleguaren bidezko diru-sarrerak lortzen diren kasuetarako. Lege honek mekanismo bat aurreikusi du, errenta bermatuaren jasotzaileek diru-sarrerak lortzen badituzte enplegu batean hasteagatik.
- Enplegua 30 egun baino gutxiagotarako baldin bada, diru-sarrera horiek ez zaizkie kontatuko prestazioaren zenbatekoaren kalkuluan. Bestela, kontatuko zaizkie, errenta bermatuak diru-sarrerak osa ditzan, prestazioa matematika-formula baten bidez kalkulatzuz, baina atal hori erregelamenduz garatu behar da.

Azken buruan, Errenta Bermatua eta orain arteko Gizarteratze Errentarekin alderatzen badugu, agerikoa da aurrerapausoak badirela, baina atzerapausoak ere bai. Guztiarekin ere, argi dago Lege berri honek ez duela zerikusi handirik egungo gizarte egoerak behar duen aldaketarekin. Murrizketak onartezinak dira, eta beharrezkoa da gizarte babesaren handitzea gizarte prestazio duinak izateko.

3. ZER KOSTU EKONOMIKO DAUZKATE GOBERNUAK PROPOSATURIKO NEURRIEK?

Lege Proiektuari atxikitako memoria ekonomikoak banan banan ataldu ditu Errenta Bermaturako hartu diren neurri nagusien kostu ekonomikoa:

- Prestazioa jasotzeko eskubidearen titulartasunari dagozkion neurriak:
- Atzerritarren prestazioa jasotzea, haien administrazio-egoera edozein izanda ere: 5,96 milioi euro.

Kalkuluen arabera, neurri horri esker 794 lagunek jasoko dute prestazioa, eta gastua batez beste 626 euro izanen da, hau da, 497.044 euro hileko.

- Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateak, urtebete bizitzen daramatenak: 1,16 milioi euro.

Eskakizun orokorra da 2 urtez bizi beharra dagoela prestazioa jasotzeko aukera izateko, baina neurri hau salbuespena da. Kalkuluen arabera, 132 familia-unitatek jasoko dute prestazioa. 735,16 euro gastatuko dira batez beste familia-unitate bakoitzeko, hau da, 97.041 euro hilean.

- Prestaziorako sarbidea mugatzea 18 eta 24 urte dituztenei

Aurreko puntuan azaldu dugun bezalaxe, sarbidea zaildu eta mugatu zaie 18 eta 24 urte artean dituztenei, eta betebeharrak gehiago eskatzen zaizkie (bi urtez bere kabuz bizitzea eta urtebetez kotizatzea). Kalkuluen arabera, murrizketa horrek 70 lagun utziko ditu prestazioa jaso gabe; batez besteko gastua 600 euro da. Beraz, murrizketa honen xedea da 504.000 euro ez gastatzea.

- 65 urtetik gorako pertsonen prestazioa jasotzea: 5,08 milioi euro.

Kalkulua egiteko, oinarri hartu da zenbat lagunek jasotzen dituzten Errenta Bermatuaren atalasearen azpiko Kotizazio gabeko Pentsioak.

- Prestazioaren zenbatekoa:

- Prestazioaren zenbatekoaren eskalaren aldaketa: 4,67 milioi euro.

Lege honek bi aldaketa ekarri ditu zenbatekoari dagokionez: batetik, eskala aldatu du, eta bestetik, oinarriko zenbatekoa murriztu du pertsona bakarreko familia-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldatari (648,6 euro) 600 eurora pasatu baita; horrela ezabatu da lanbide arteko gutxieneko soldatari egiten zitzaion erreferentzia prestazioa kalkulatzeko.

Bi neurri horiek eraginda, Errenta Bermatuaren batez besteko gastua 626 euro da familia-unitate bakoitzeko, eta 389.494 euro gehiagoko gastua eragingo du hilean. 4,67 milioi urtean.

- "Halako bat eta erdi" sistema ezabatzea: 702.557,76 euro.

Kalkuluen arabera, muga horrek 777 familia-unitate ukituko ditu, eta hileroko, 58.546,48 euroko kostua izanen du.

- Prestazioa jasotzeko epe muga ezabatzea: 157.752 euro.

Kalkuluen arabera, 21 familia-unitateri eragingo die, eta 626 euroko kostua izanen du hilean batez beste.

- Enpleguaren bidezko diru-sarreraren osagarria: 1,56 milioi euro.

Kalkuluen arabera, neurriak 467 familia-unitateri eragingo die, eta 279,3 euroko kostua izanen du hilean batez beste.

Guztira, Nafarroako Gobernuak egindako kalkuluaren arabera, aldaketek 18,8 milioi euroko kostu ekonomikoa eragingo dute. Hala ere, dirutza hori ez da erreala diru-kutxa publikoentzat, zeren 5,1 milioi euro kendu behar baitira kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen zerga itzulketatik; hortaz, kostua, guztira, 13,7 milioi euro izanen da.

NEURRIEN KOSTU EKONOMIKOA (MILIOI EUROTAN)

Atzerritarren prestazioa jasotzea, haien administrazio-egoera edozein izanda ere	6,0
Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateak, urtebete bizitzen daramatenak	1,2
Prestaziorako sarbidea mugatzea 18 eta 24 urte dituztenei	-0,5
65 urtetik gorako pertsonen prestazioa jasotzea	5,1
Prestazioa jasotzeko epe muga ezabatzea	0,2
Enpleguaren bidezko diru-sarreraren osagarria	1,6
Prestazioaren zenbatekoaren eskala aldatzea	4,7
Halako eta erdia	0,70
GUZTIRA	18,8
Kotizazio Gabeko Pentsioak jasotzen dituztenen zerga itzulketa	5,1
GASTUA HANDITZEA	13,7

Iturria: Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arabera, Errenta Bermatu berria ezartzeak 13,7 milioi euro gehiago gastatzea eragingo du egungo prestazioaren aldean (Gizarteratze Errenta); baina horrek ez du esan nahi hori halaxe izanen denik datozen urteotan.

Izan ere, arau berria eskaera berriei eta berritzei aplikatuko zaie; beraz, 2017an, 8,46 milioi euro gehiago gastatuko dira, eta 2018, 5,26 milioi euro gehiago, hau da, gastu igoera (13,7 milioi eurokoa) 2 urtean egingen da. Horrek esan nahi du Gobernuak neurrietarako kalkulatu duen 13,7 milioi euroko kostua pixkanakakoa izanen dela, neurriak ere mailaka ezarriko baitira, eskaera berriei eta berritzei aplikatuko baitzaie (beraz, jada prestazioa duenak aurreko arauketarekin jarraituko baitu huraxe berritu behar izan arte). Hori guztia kontuan hartuta, gastua 2017an 8,46 milioi eurotan handituko da egiazki, eta 5,26 milioi euro gehiagotan, 2018an.

**NEURRIEN KOSTU EKONOMIKOA URTE BAKOITZEAN 2017-2018
(MILIOI EUROTAN)**

2017	8,46
2018	5,26

Iturria: Nafarroako Gobernua

**4. NAFARROAKO GOBERNUAK EZ DU BETE AKORDIO
PROGRAMATIKOAN HARTUTAKO KONPROMISOA**

Errenta Bermatuak ez ditu bete Nafarroako Gobernuaren Akordio Programatikoa sinatu zuten lau talde politikoek hitzarturiko gauza batzuk, ELAk eskasegia zela salatu zuen akordio programatikoarenak hain zuzen.

Esate baterako, besteak beste ez da bete "oinarrizko errenta bat ezartzea legealdiko lehenengo sei hilabeteetan" , legea 2016ko azaroan onartu baita.

Erreforma gehiegi luzatu da. Egia da Gobernuak ez duela konpromisoa bete, baina batez ere inola ere nahikoa ez delako orain arte indarrean egondako prestazioa, beharrean dagoen jende asko utzi baitu kanpoan, eta ez dituelako bizi-baldintza duinak bermatzen. Hau da, ez da inola ere nahikoa izan, gizartean dagoen egoerari aurre egiteko.

Errenta Bermatuak, gainera, ez du bete Akordio Programatikoa jasota dagoen beste gauza bat, hots, Nafarroan urtebete bizitzen daramatenek kobratuko dutela. Izan ere, prestazioa jasotzeko, eskatzaileak 2 urte eraman behar ditu bizitzen (urtebetea, familia-unitateak adingabeak ardurapean baldin baditu).

Azkenik, Errenta berri honek beste konpromiso bat ere ez du bete, hots, zenbatekoak lanbide arteko urteko gutxieneko soldataren arabera izatea, 600 eurora murriztu baita zenbatekoa kalkulatzeko oinarria; batetik, zenbatekoa murriztuta, eta bestetik, lanbide arteko gutxieneko soldataren erreferentzia ezabatuta (655,2 euro).

ELAk ez du baloratuko Lege hau 4 alderdi politikoek sinatutako Akordio Programatikoa hartutako konpromisoen arabera, baizik eta kontuan hartuko du aski izanen ote den behar den gizarte babesa bermatzeko. Hala ere, Akordio Programatikoa bete ez direnak ikuspuntu ekonomikotik aztertzea esanguratsua izan daiteke.

Horren haritik, ELAk kritikatu du ez dela aski Nafarroako Gobernuaren zerga politika gizarte politika bat egiteko. Eta horrelaxe frogatu da Errenta Bermatuarekin. Zentzu honetan, aipatzekoa da Nafarroa eta Europar Batasuneko batz besteko presio fiskalaren aldea 1.800 milioi euro baino handiagoa dela.

ELAk kritika nagusi bat egin zion Akordio Programatikoari; bertan jasota dagoen zerga politikarekin ezinezkoa da garatzea beharrezkoa den gizarte aldaketa. Eta Errenta Bermatua, hain zuzen, horren adibidea da, ez baitu betetzen Akordio Programatikoan hitzartutako guztia, eta bete ez diren puntu horiek diru aurrezpen handia eragin dute.

5. ONDORIOAK: FISKALITATE ESKASAK BALDINTZATUTAKO PRESTAZIO ESKASA

- *Murrizketa onartezinak nahikoa ez den prestazioaren gainean*

- Gehiegi luzatu da

Gizarteratze Errentaren erreforma hau gehiegi luzatu da. Kontuan hartuta zer-nolako gizarte-egoera kezkarria dagoen Nafarroan, bertako Gobernuak behar bezalako gizarte babesa bermatzeko erantzukizuna du, eta Gizarteratze Errentak ez du inola ere holako babesik eman.

Gauzak horrela, premia osoz ekin behar zaio, eta ez bazaio berehalakoan ekiten, jende aunitzek jarraituko du bere behar oinarritzkoenak bete gabe.

Horren haritik, Gobernuak urtebetea baino gehiago behar izan du ekiteko, eta hori gehiegi da.

- *Prestazioaren zenbatekoa murriztu zaie pertsona bakarreko familia-unitateei eta gutxieneko soldataren erreferentzia desagertzen da*

Nafarroako Gobernuak 655,2 eurotik 600 eurora murriztu die prestazioaren zenbatekoa pertsona bakarreko familia-unitateei.

Nabarmendu behar da pertsona bakarrekoak direla prestazioa jasotzen duten familia-unitateen ia erdiak.

Gainera, gutxieneko soldataren erreferentzia kentzeak 107,6 euroko murrizketa suposatuko die prestazioa jasotzen duten pertsona bakarreko unitateei 2017an, eta 39,1 eurokoa bi pertsonako unitateei.

Hau da, 2017an gutxieneko soldata 707,6 eurora igo da, Errenta Bermatua 600 euroko oinarriarekin mantendu den bitartean, nahiz eta prestazio hau 2016an indarrean sartu den eta zenbatekoa urtero eguneratu behar dela ezarri Legeak. Hau da, zenbatekoa 2017an eguneratu beharrean, 2018ko urtarrilaren 1a arte kopurua izoztuta egongo da.

Honela, seguraski, Nafarroako Gobernuak diru gutxiago bideratuko du prestazio hau ordaintzera Lege berriarekin aurreko legediarekin baino, gutxieneko soldataren igoera ez baita ezarriko.

- 18 eta 24 urte bitartekoei zailtasunak ezartzen zaizkie prestazioa jasotzeko

Prestazio honek zailtasunak jartzen dizkie 18 eta 24 urte bitartekoei. Gizarteratze errentak hasieran gutxienez 25 urte izateko balditza zuen, baina 18 urte izatera pasa zen aldaketa bidez.

Orain 18 eta 24 urte bitartean dituztenek, bi urtez euren kabuz bizi direla, eta urte betez Gizarte Segurantzaren kotizatu dutela frogatu beharko dute.

- *Nahiz eta prestazioak zenbait alor hobetzen dituen, ez da nahikoa*

Errenta Bermatuak ez du bermatzen beharra duten pertsona guztiek jasoko dutenik, ezta jasotzen dutenentzako nahikoa izango denik ere, nahiz eta Gizarteratze Errentaren aldean aurrerapen nabarmen batzuk izan:

- Prestazioa jasotzeko ez da erregularitasun legalik eskatuko
Baldintza hau kentzeak erregularitasun administratiborik ez duten pertsonen bidea irikitzen die
- 65 urtetik gorakoek eskatu ahal dute
- 2 pertsona baino gehiagoko familia-unitateei zenbatekoa igoko zaie
- Prestazioa behar egoerak jarraitzen duen bitartean iraun lezake, orain arteko 36 hilabeteetako muga kenduz

- *Fiskalitate urriak gizarte babes urria dakar*

Gizarte babesa eta justizia soziala aberastasuna banatzeari daude zuzenean lotuta. Jakina, Errenta Bermatua bezalako prestazioa ezartzeak (edo Oinarrizko Errenta, izena edozein izanda ere) gastu ekonomikoa dakar, bai eta hori aski izateak ere.

Gastua handiagoa edo txikiagoa izanen da, zer babes ematen duen; hau da, zenbat eta gizarte premia gehiago babestu, eta zenbat eta bizi-maila handiagoa bermatu, hainbat eta kostu handiagoa izanen du aurrekontu publikorako.

ELAk Nafarroako zerga politika kritikatu du, urteetan UPN-PSNko gobernuek diseinatu dutena enpresen eta elite ekonomikoaren interesak sustatzeko, eta Barkosen Gobernuak mantendua.

Zerga politika diru-bilketa urrian eta bidegabean dago oinarritua, eta horren ondorioz, ezin da beharrezkoa den gastu soziala handitu. Aldaketa fiskala aldaketa sozialaren zati bat da.

- Prestazio honen arazoa gastua gehiago ez handitzea da: 3,8 milioi euro gehiagorekin ez litzateke zenbatekoan murrizketarik emango

Memoria ekonomikoaren arabera, Errenta Bermatua ezartzeak egungo Gizarteratze Errentaren gastua baino 13,7 milioi euro gehiago bideratzea suposatuko du.

Nafarroako Gobernuak Errenta Bermatuan murrizketa larri hauek ezartzearen arrazoi nagusia gastua ez handitzearena da. Eta gastu murrizta izateak, prestazioa ere murrizta izatea behartzen du, eta ondorioz, ez-nahikoa guztiz gizartearen egoerari aurre egiteko.

Lege honek daukan murrizketarik larrienetakoa zenbatekoaren murrizketa da. Aldi berean, gutxieneko soldataren erreferentzia galduarazten diona.

Familia-unitate bakarrei zenbatekoa gutxieneko soldataren adinakoa mantentzeko, Nafarroako Gobernuak nahikoa luke 3,8 milioi euro gehiago bideratzea .

Hau da, Errenta Bermatuaren aurrekontua 3,8 milioi euro handiagoa balitz, 17,5 milioi eurotako guztira, ez lukete murrizketa hau egingo.

- **Gastu sozialera bideratzen den diruaren itzulera ere kontutan hartu behar da**

Gastu sozialaren helburu nagusia berdintasuna eta justizia soziala da. Baina honetaz gain ere kontutan izan behar da gastu honen eragin ekonomikoa. Izan ere, gai sozialetara bideratzen den diruaren zati bat administrazioaren kontuetara bueltatzen baita zergen bidez.

Beraz, zenbat eta diru gehiago bideratu gastu sozialera, orduan eta diru gehiago bueltatuko da kontu publikoetara. Nafarroako Gobernuak berak 2015ean Gizarteratze Errentara bideratutako 64 milioi eurok 10,7 milioi eurotako diru-bilketa suposatu zutela ondorioztatu zuen ikerketa baten bidez.

C) 2016-2019KO ENPLEGU PLANAREN ZIRRIBORROAREN BALORAZIOA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako bosgarren Enplegu Planaren zirriborrea aurkeztu du. Beharrezkoa eta premiazkoa da aldatzea Nafarroan azken urteotan aplikatu diren enplegu-politikak. Izan ere, konpondu beharreko kontua da, demokratizaziorantz, gardentasunerantz, berdintasunerantz eta justizia sozialerantz joko badugu.

1. AURREKARIAK: NAFARROAN EZAGUTZEN DUGUN ENPLEGU-POLITIKA

Azken hamarkada hauetan Nafarroan egin diren enplegu-politiken lehenetasuna UPN eta PSNko Gobernuen itzalean kokatu diren erakundeei zerbitzu ematea izan da. Horren ondorioz, beti bigarren planoan utzi da bai enplegua sortu eta mantentzea, bai enpleguaren kalitatea, bai gizarteratzea, bai aukera-berdintasuna, etab.

ELA sindikatuak ezin konta ahala aldiz helarazi ditu bere proposamenak enplegu-politikak aldatzeko, eta politikak langileen zerbitzuan jartzeko. Kontuan hartu behar da enplegu-politiken kontzeptuaren interpretazio erredirekzionista egiten dela. Egiazki, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren programetan enplegurako alderdi garrantzitsuak utzi dira alde batera, hala nola politika industrial, osasuna, hezkuntza, etab.

Baina enplegu-politikak konpondu gabeko arazoa izaten jarraitzen du Nafarroan. Egun enpleguan dagoen egoera hein handian zor zaie azken urteotan egindako politikei nahiz ekimenei. Horrela, 2016an, esan dezakegu egungo Nafar Gobernuak ere ez duela oraindik bermatu demokraziaren oinarri-oinarrizko gauza bat; aukera-berdintasuna, hain zuzen.

Orain arte indarrean izaniko ereduak adibide kezkarri ugari utzi ditu; besteak beste, honako hauek:

A) Nafarroako Enplegu Zerbitzua, hau da, UPN, PSN, CEN, UGT eta CCOOen interesen arabera sortutako erakundea

Ez da gauza berria esatea SNE-NL zerbitzua diseinatu zela patronalak eta UGTk nahiz CCOOk diru publikoak era pribatuan kudea zitzaten.

Kontuen Ganberak berak aztertu du hori, eta ondorioa izan da erakunde horiek diru publikoa zuzendu, deialdiak egin eta esleitzen zutela enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzen bidez. Kontuen Ganberak, gainera, hauxe nabarmendu du: "eragotzi beharko litzateke entitate berberak parte hartzea SNE-NL bezalako organismo baten zuzendaritza organoetan; izan ere, aurrez onespena ematen diete lankidetzaz hitzarmenei, eta aldi berean, hitzarmen horien onuradunak dira, enplegurako lanbide-heziketarako diru-laguntzen arloan".

Horren adibidea da Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2015ean aldebiko hitzarmenak egin zituela CEN patronalarekin eta UGT nahiz CCOO sindikatuekin, eta ordura arte ez zen halakorik egin. Arrazoia da aldaketa izan zela Estatuko araudian, eta horrek eraginda, 2015etik aurrera, enplegurako prestakuntzarako diru-laguntzak lehia irekiaren bidez eman behar dira, hau da, lehiaketa bidez, eta lehiaketan aurkezteko eskubidea izan behar dute hartan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten entitate guztiek.

2015era arte, enplegurako prestakuntzara bideratzen ziren diru-laguntzen % 90 inguru esleitzen zioten beren buruari hiru erakunde horiek, lehia eskusiboan esleitu ere; hau da, diru-laguntza horietara CEN, UGT eta CCOO soilik aurkez zitezkeen.

Baina diru-laguntza horiek CEN, UGT eta CCOO erakundeei esleitzeko formula ezinezkoa denez 2015etik aurrera, aldaketa bat egin zen aurrekontuetan, eta emaitza izan da batetik, behera egin zutela enplegurako prestakuntza diruz laguntzeko kontusailek, eta bestetik, eta aldi berean, zenbateko hori aldebiko hitzarmenetara bideratu dela, hau da, hiru erakunde horiekin aldebiko hitzarmenak egitera. Bestela esanda, diru hori lehia eskusiboaren bidez esleitu ez daitekeenez, diru hori bideratu da SNE-NL zerbitzuak CEN, UGT eta CCOO erakundeekin egindako hitzarmenetara.

ELAK beti kritikatu du funtzionamendu hori SNE-NL zerbitzuan, eta esan du organismo antidemokratiko, ilun eta klientelista dela.

Egungo Nafarroako Gobernuak hein batean aldatu zuen SNE-NL zerbitzuaren funtzionamendua, eta parte hartzeko aukera eman die ANEL patronalari eta % 10etik gorako ordezkariak duten sindikatuei, hau da, aurrez zeudenez landara, ELAK eta LABek dute SNE-NL zerbitzuak horretarako ezarritako organoetan sartzeko eskubidea.

Hala ere, ELAK erabaki du SNE-NL zerbitzuan ez parte hartzea, zerbitzu hori ez baita birsortu, makillatu baizik ez. ELAren iritziz, Gobernuak aukera bat galtzen utzi du alorrez alorreko politikak berrikusteko, eta era berean, politika klientelarra eta pribilegioak ezabatzeke, bata zein besteak UPN-PSNko gobernuen ezaugarri nagusia izan baitziren enpleguaren arloan.

Horren adibidea da SNE-NL zerbitzuak eutsi egin diola 2016an UGT, CCOO eta CEN erakundeak diruz laguntzeko politikari, Nafarroako aurrekontuetan 5 milioitik gorako kontusailak mantendu baititu, erakunde horiekin aldebiko hitzarmenak egiteko.

Enplegu-politika aktiboen helburuak ez du izan behar egitura jakin batzuk finantzatzea. Gainera, horrela, SNE-NL zerbitzuak oraindik ere ez du betetzen sindikatu guztiendako aukera-berdintasuna, eta Nafarroako Gobernuak hori bermatu beharko luke.

B) Enplegu Planak

1998az geroztik, lau Enplegu Plan onetsi dira, eta azkenaren luzapena ere bai. CEN, UGT eta CCOO erakundeek lehen Enplegu Plana 1999-2001 urteetarako sinatu zuten Nafarroako Gobernuarekin; 2001ean, II. Enplegu Plana sinatu zen, 2002-2004 urteetarako; 2004an, III. Enplegu Plana sinatu zen (2005-2007), eta 2009an, IV. Enplegu Plana (2009-2012). Azkenik, 2013ko abenduan, IV. Enplegu Planaren (2013-2014) luzapena erabaki zen.

Plan guztien ardatza izan da, batetik, diru publikoa kopuru handian esleitzea; bestetik, planak sinatzean lorpen handiak agintzea, eta azkenik, autokonplazentziazko diagnosis eta propaganda, behin planen iraunaldia bukatutakoan. Horrela, 2014ko luzapena soilik 43,4 milioi euroz hornitua egon zen; II. Enplegu Planak 417,1 milioi euroko aurrekontua izan zuen, eta III. Enplegu Planak, 431,6 milioikoa. Guztira, 1.500 milioi euro bideratu dira enplegu-planetara.

Enplegu Plan horien guztien helburua ez da izan egiazko enplegu-politika bat bultzatzea, eredu klientelista bat garatzea baizik.

Planen artean bakar batek ere ez du lortu bere helbururik, eta horrek erakusten du ez dutela inola ere balio enplegu arloko arazoak konpontzeko: hau da, langabezia maila handia, prekarietatea, lan istripuak, enplegurako prestakuntzaren kalitate txarra, etab.

Begi bistan dago plan horien erabateko porrota; hau da, gauza bakarra egin dute, hots, gaizki kudeatu dute enplegu-politika aktiboetara bideratutako dirua.

C) Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua

Barcinaren Gobernuak abiarazitako azken ekimenetako bat Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea izan zen, PSNrekin adostuta. 2014ko abenduan osatu zen, eta 900.000 euro eman zitzaizkion.

Nafarroako Gobernuak hasieran esan zuen bazuela asmoa Kontseilua sorrarazi zuen Foru Legea aldatzeko, baina egia esan ez da inolako aldaketarik egin. Beraz, indarrean dirau UPNk eta PSNk adostutako lege berberak, eta besteak beste, legeak hauxe ezarri du Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaz: "Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua da Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatean ordezkartasun handiena duten sindikatuek eta enpresaburu-erakundeek elkarren arteko bilgune izateko duten organo instituzional iraunkorra", eta "...parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du, diru-laguntza izendun gisakoa. Kontusail horren xedea izanen dira ordezkartasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeak, alde batera utzita erakunde horiek, esparru ekonomiko eta sozialeko interes orokorreko erakunde gisa, beren jarduera sustatzeko jasotzen dituzten diru-laguntzak".

Hala ere, egungo Gobernuak Kontseiluari berreldu dio, oraindik ere argitu gabe CEN, UGT eta CCOO erakundeek dirua kobratuko ote duten hartan parte hartzeagatik. Gobernuak indarrean darabilen Kontseiluaren helburu nagusia hiru erakunde horiek finantzatzea da.

D) Nafarroa Plana 2012

Plana 2008ko apirilean diseinatu eta sinatu zuten UPNk eta PSNk. Geroago, CEN, UGT eta CCOO erakundeek bat egin zuten. Planak lan publikoak egitea besterik ez zuen aurreikusten, 4.508,9 milioi euroko gastuarekin. Besteak beste, Planak hainbat azpiegitura eraikitzea diseinatu zuen: Sanferminetako Museoa, Los Arcosko Zirkuitua, Gendulaingo Plana, Nafarroako Ubidea, Nekazaritza-elikagaien Hiria edo Navarra Arena Pabilioia.

Hasieratik beretik, ELAk oso txartzat jo zuen bai Plana, bai eta politika egiteko modu hori ere, UPN eta PSN alderdien propaganda hutsa izan baitzen, oso garestia eta alferrekoa Nafarroarentzat. Urteak joan urteak etorri, lan faraoniko horiek guztiek egoera okerragotu baizik ez dute egin, diru publikoa gardentasunik gabe gastatzea eragin dute, eta horrek kostu handia izan du bai gizartean, bai ekonomian, bai ingurumenean.

E) Moderna Plana

Planaren sinatzaileak UPN eta PSN, Opus Dei, eta CEN, UGT nahiz CCOO erakundeak izan ziren, besteak beste. Haien asmoa izan zen politika publiko jakin batzuk esku pribatuetan uztea. Planak Nafarroari buruzko ikuspegia marraztu zuen handik 20 urtera, 2030erako, eta honela definitu zuten: "Garapen ekonomikorako eredu berria Nafarroarentzat".

Plana garatzeko, Fundazio pribatu bat sortu zen; gakoa horixe izan zen. Fundazioa bera bultzatu zuten pertsonak izan ziren Fundazioko kide, eta pertsona horiek berek izendatutako "adituak" ere bai. Hura Moderna Fundazioa izan zen, eta kudeaketa publikoko eginkizunak ematen zitzaizkion, guztiak ere Administrazioaren bitartez egin beharrekoak.

2015eko azaroan, egungo Nafar Gobernuak Moderna Fundazioa iraungitzea erabaki zuen, eta Fundazioaren ekimena Sodena enpresa publikoan sartzea.

2. 2016-2019ko ENPLEGU PLANAREN ZIRRIBORROAREN EDUKIA

Nafarroako Gobernuak berriz ere abian jarri nahi du Nafarroan ezaguna den formula bat, orain arte helburuak betetzeko balio izan ez duena; hots, Enplegu Plana.

Beraz, eta aurreko lau Enplegu Planen (eta azkenaren luzapenaren) emaitza bera eragotzi nahi bada, eta egiazki xedea bada helburuak lortzea,

bestelako neurriak hartu beharko dira. Hau da, errezeta berberak erabiltzen badira, aurreko Enplegu Planen emaitza berbera izanen da; porrota, alegia.

Hona hemen 2016-2019ko Enplegu Planaren zirriborrotik atera ditugun ondorio nagusiak:

- *Diagnostiko osatu gabea: ez dira arrazoiak aztertu*

Egia da Enplegu Planak diagnosi zabala egin duela enpleguak Nafarroan duen egoeraz, baina aldi berean egia da ez dela aztertu zer arrazoik eraginda gauden egoera honetan.

Enpleguak Nafarroan duen egoera hein handian zor zaie gurean aplikatzen ari diren politikei. Eta egoera egiazki aldatuko bada, ezinbestekoa da politikak aldatzea. Politikek bere horretan badiraute, agertoki berean jarraituko dugu.

Enplegu Planaren zirriborroaren diagnosian ez da hitzik enpresen aldeko lege-desorekaz, enpresen abusuez, eta era berean, ez da esaten enpresek berek ezartzen dituztela prekarietate baldintzak.

Nafarroako Gobernuak, hortaz, ez du aztertu zerk eraginda gauden ataka honetan, eta halaxe jokatu du ez duelako zergatietan eragiteko asmorik.

Planak, gainera, ez ditu aztertu enpleguari zuzenean eragiten dizkieten elementuak, hala nola politika industrial, merkataritza dagokion politika edota ekoizpen-estrategia. Egia bada ere Gobernuak gai horiek kasuan kasuko plan estrategikoetan aztertu nahi dituela (zirriborro honetan jasota dagoen bezalaxe), beharrezkoa da Gobernuak gai horiek guztiak Enplegu Planean sartzea, zeren, bestela, ikuspegi partziala ematen baita.

Ezinezkoa da, adibidez, lan prekarietatea Enplegu Planean jorratzea, Nafarroako Gobernuak berak Nafarroako Merkataritza Kontseiluaren bileran berriro baliozkotzat jotzen duen bitartean komertzioa jaiegunetan irekitzea (patronalak proposaturik). Hori adibide bat baizik ez da, baina agerikoa da ezin dela enplegurako politika era isolatuan jorratu; beraz, Gobernuak egiazko interesa baldin badu Zirriborroan ezarritako helburuak lortzeko, helburuetara bideratutako erabakiak hartzen has daiteke.

- *Enplegua sortzeko proposatu diren neurriak desegokiak dira helburuak lortzeko*

Zirriborroak, gainera, ez du zalantzan jarri Nafarroan azken hamarkada hauetan aplikatu den enplegu-politika. Ez dakar kritikarik Nafarroan izan diren enplegu-planez, eta plan horiek ez dituzte inoiz ere helburuak bete, eta inoiz ez da haien eraginkortasuna baloratu.

Horrexegatik oker egitea da aurreko Enplegu Planetan bildutako neurri asko errepikatzea.

Horren haritik, ez da gauza berria enpresendako zergak jaitea enplegua sortzeko. Are gehiago, neurri hori aunitzetan aplikatu da Nafarroan, eta ez du sekulan funtzionatu. Ezinezkoa baita funtzionatzea. Enpresek ez baitute sekulan inor kontratatzen, ekoizpenak berak jendea kontratatzen behartzen ez baditu; hau da, ez dute inor kontratatzen, zerga gutxiago ordainduko dutelako, edota halako diru-laguntza bat jasoko dutelako.

Azken finean, enpresei are tratu pribilegiatuagoa emateko modu bat da, eta horren ondorioz, gainera, diru-bilketa publikoa murriztu egiten da. Beraz, are abantaila handiagoa ematen zaio lan-harremanetan indar-posizio handiagoa duenari.

Bestalde, lana banatzea eta halako proposamenak zuzenean daude prekarietateari lotuak (nahiz eta Zirriborroak dakarren neurria ez doan horri buruzko azterlan edo biltzar bat egiteaz haratago). Irtenbidea ez da inola ere are gehiago atomizatzea egungo enpleguak, egungo ezaugarri nagusietako bat baita lana gero eta partzialagoa eta prekarioagoa dela. Arazoa aberastasunaren banaketan datza. Eta konponbidea ez daiteke kargatu enplegu prekarioa dutenen bizkar gainean.

- *Prekarietateari ez zaio aurre egin, enpresendako diru-laguntzak eta zerga-laguntzak ezarrita*

Prekarietatea handitzea erabat da kezagarria. Ez da abagune jakin bati lotutako kontua, baizik eta lan-erreformen eta enpresa-politikaren ondorioa, langileen lan-baldintzak kaskartu baitira enpresen irabaziak handitzeko.

Beraz, egoera ikusita, guztiz onartezina da enpresendako diru-laguntza eta zerga-laguntza gehiago proposatzea, besteak beste enpresak baitira prekarietatea handitu izanaren arduradunak. Honela, "hitzarmenak ezarritakoa baino soldata igoera altuagoa adosten duten enpresetarako kuotan beste dedukzio fiskal bat ezartzea" proposatzen da.

Beste alde batetik, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarekin lan-ikuskapena handitzea eta kontrol gehiago egitea aldi baterako kontratazioan negoziatzea proposatzen da. Lehenik, neurri horiek asmo hutsa dira etorkizunean eginen diren negoziatioetarako. Eta bigarren alde batetik, ELAren ustetan Nafarroako Gobernuaren eskariak ez luke hau izan beharko, Lan Ikuskaritzaren gaineko kompetentzien transferentzia baizik.

- *Nafarroako Gobernuak bazter utzi du bera ere enplegatzailea dela.*

Zirriborroan proposaturiko helburuetan aurrera eginen bada, Nafarroako Gobernuak bere enplegatuekin hasi beharko luke.

Tarte handia baitago bai enplegua sortzeko, bai Nafarroako Gobernuak enplegatutako pertsonen lan-baldintzak hobetzeko, behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak erabat baitira neurrigabeak.

Nafarroako Gobernuak tarte handia du Enplegu Planaren Zirriborroan ezarritako helburuak lantzen hasteko, Gobernuaren beraren erabaki-esparruaren baitan. Izan ere, helburu horiek lortzearen, eta gero, hori eragingarri izan daitekeelako, enpresa pribatuetan gauza bera egin dadin.

· *Langileriarekin guztiz bidegabea den enpresa-kultura eta -eredua sustatzen da*

Izan ere, "enpresa-kultura berriak" helburu du lehiakortasun handiagoa lortzea (hau da, irabazi handiagoak lortzea) era "partekatuan" langileekin, kanpoko agenteen eraginik gabe, eta sindikaturik gabe, soilik "eragindakoen artean, enpresa, zuzendari eta langileak".

Hau da, lan-harremanak planteatu nahi dira langileen eta enpresaburuen arteko konfrontaziotik kanpo, lan-zuzenbidetik kanpo, hau da, langileak eta haien eskubideak soilik babesten dituen arauditik kanpo, bai eta negoziazio kolektibotik kanpo ere. Azken finean, ezer ere ez dadila tartekatu soldatapekoaren eta enpresaren artean.

Onartezina da Nafarroako Gobernuak bere egitea patronalaren asmoak, eta hori gisa horretan marrazten saiatzea.

Gainera, atal honetan proposatutako neurrien artean, hauxe ere jaso da: "elkarrizketa sozialaren barruan ekimenak bermatzea lan-harremanen kultura berri bat garatzeko".

Hau da, Gobernuak patronalaren asmoez haratago jo nahi du, eta elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenen interesez haratago ere bai, UPNko Gobernuak egin izan duten bezalaxe.

Begi-bistakoa da neurri horiek ez diotela inolako onurarik ekarri langileriari. Nafarroan aski ongi ezagutzen dugu zer den elkarrizketa soziala, eta esperientziak erakutsita badakigu parte-hartzaileen interesen zerbitzuan dagoela, bai eta haien finantzaketaren zerbitzuan ere, eta horretarako, ilunkeria eta sistema antidemokratikoak erabiltzen dituzte.

· *Ekintzailtza (edo langabeen bizkar gainean kargatu langabeziaren ardura)*

Ekintzailtza baliagarri zaio patronalari enpresa berrien kargura laguntza eta diru-laguntza gehiago eskuratzeko, eta baliagarria gobernuei, langabeen bizkar gainean zamatzeko enplegu-politika ez-eraginkorren ardura.

Horrela, lanik ez dutenei errua botatzen zaie enplegua sortzeko gai ez izateagatik, baina atzean enplegu-politiken porrota dago ezkutatua. Beraz, ez daiteke kaltetuenen (langabeen) eskuetan utzi enplegu-suntsiketarendako eta langabezia-maila handiarendako konponbidea.

Onartezina da, gainera, Ekintzailtza Planean jasota dagoen bezalaxe, Enplegu Planaren Zirriborroak balio horiek irakaskuntzan sartu nahi izatea.

Hortaz, Gobernuak arlo honetan ere bere egin ditu patronalaren tesiak, eta gainera, irakaskuntzan ere sartu nahi ditu.

- *Lan arriskuen prebentzioa eta lan osasuna ez daitezke jarri elkarrizketa sozialaren eskuetan*

Prebentzioaren eta lan osasunaren arloan erabat da kezkarria Ekintza Plana (2016-2018) Nafarroako Lan Osasunaren III. Planaren barruan prestatu nahi izatea UPNren Gobernupean onetsi baitzen.

Egungo Nafar Gobernuak proposatutakoa bat dator erabat UPNko Gobernuak egiten zutenarekin. Besteak beste, hauxe esaten da: "elkarrizketa sozialaren baitan baloratuko da datozen urteotarako berreskuratzea sindikatuek eta enpresaburuak elkarrekin lan segurtasunaren eta osasunaren arloan proposatutako proiektu interesgarriak".

Nafarroako Gobernuak argitu behar du zer esan nahi duen horrekin, eta egiazki nahi ote duen lan arloko prebentzioa eta osasuna egotea elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenen interesen eta haien finantzaketaren zerbitzuan, orain arte bezala.

Gero eta lan-ezbehar gehiago gertatzen dira, eta orain arte bezala, araudia ez da betetzen ari. Lan-istripuek 12 hildako eragin dituzte 2015ean, eta beste 12, 2016an. Horrek izan beharko luke Nafarroako Gobernuaren kezka, eta ez, ordea, erakunde jakin batzuen zuzeneko edo zeharkako finantzaketa, bake sozialaren truke.

- *Enplegurako prestakuntzak langabeen eta landunen interesen zerbitzuan egon behar du, eta ez bestelako interesen zerbitzuan*

Enplegurako prestakuntza esparru iluna eta klientelarra izan da, eta hartan parte hartu duten erakundeek probetxurako erabili da.

Enplegurako prestakuntza errotik aldatu behar da, langabeen eta landunen zerbitzuan jartzeko. Aldaketa orok gardentasuna eta arlo publikoa izan beharko lituzke oinarri.

Horretarako, lehen pausoak izan behar du orain arte enplegurako egin den prestakuntza-politika berrikusi eta baloratzea, eta hori ez da Enplegu Plan honetan egin. Hau da, Enplegu Planaren zirriborroak ez dio aipamenik egin SNE-NL zerbitzuan aplikatzen ari den kudeaketa-ereduari. Bidenabar esateko, kudeaketa-eredu hori iluna, antidemokratikoa eta klientelarra da.

Hala ere, badirudi hori ez dela Nafarroako Gobernuari ezezaguna zaion zerbait, zeren, zirriborroak bildu dituen proposamen asko enplegu-zerbitzu publikoaren gardentasunerantz eta publikazioerantz bideratuta baitaude.

Horren haritik, aipatu behar da badirela alde onak; esate baterako, enplegurako prestakuntzarako, "lehenetsunez SNE-NL zerbitzuko zentro publikoak erabiliko dira, hala nola Lanbide Heziketako sarea".

Hori guztia zuzenean dago lotuta SNE-NL zerbitzuan nahitaez egin beharreko aldaketarekin, betiere gardentasunean eta publikazioan oinarrituta. Eta aldaketa hori doa Nafarroako Gobernuak daraman aldaketaren kontrako norabidean, zeren, 2016an, eutsi egin baitio CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko alde biko hitzarmenen politika ilun eta klientelarrari. Eta politika hori publikotasunaren eta gardentasunaren aurka doa, eta azken finean, sindikatu guztien aukera-berdintasunaren aurka.

Nafarroako Gobernuak ez du jardun behar elkarrizketa sozialean parte hartzen dutenen interesen zerbitzuan, enplegura bideratzen diren diru publikoak erabilia. SNE-NL zerbitzuan egiten den aldaketa orok ez du ondorio onik izanen, baldin eta erakunde horiei zuzenean edo zeharka finantzaketa ematen jarraitzen bada.

3. ELAren PROPOSAMENAK ENPLEGURAKO

ELAren iritziz, enplegu-politikek kalitatezko enplegua sortu eta mantendu behar dute. Horrenbestez, gogoetak eragin beharra dauka baldintza duineko lanpostuak sortzea dakarten egiturazko politketan.

1. ZERGA POLITIKA. Kalitateko enplegua sortzeko politikak aplikatuko badira, lehenik eta behin errotik aldatu beharko dira aplikatzen ari diren aurrekontu eta zerga politikak. Aurrekontuak doitu eta murrizteko politiken ondorioz, langabezia nabarmen hazi da. Horregatik, aurrekontu politika horietan atzera egin behar da. Izan ere, ezinbestekoa da gastu publikoa handitzea, eta horretarako, halaber, errotik aldatu behar dira azken urteotan aplikatu diren zerga-politikak, ELAk hainbat proposamenen bidez aldarrikatu izan duen bezala. Gogoratu beharra dago Europar Batasunarekiko dagoen defizit fiskala (2.000 milioi euro urtero Nafarroan), eta horrek zer dakarren berekin, hau da, deskapitalizazioa, eta enplegua sortzeari uko egitea.
2. SEKTORE PUBLIKOA GARATZEA. Bereziki, Ongizate estatuarekin zerikusia duten zerbitzu publikoak. Nafarroan, Europan batez beste gastatzen dena baino askoz ere gutxiago gastatzen da babes sozialean, eta horren ondorioz, gizarte eta enplegu arloko estalduren maila txikiagoa da. Enplegu publikoaren maila igo beharra dago osasunean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan, garraioan, etab. Ikusten den bezala, gizarte babesa hobetzeak kalitatezko enplegu maila handiagoa dakar.
3. KONTRATAZIO PUBLIKO GUZTIETAN KLAUSULA SOZIALAK SARTZEA BERMATU BEHAR DA. Beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak inplikatzeko, eta era berean, bermatzea kontratazio publiko orotan sar daitezela ELAk herri-ekimen legegile baten bidez bultzaturiko klausula sozialak.

Nabarmenezkoa da herri-ekimen legegilean bildutako edukien garrantzia; subrogazioa, aplikaziorako hitzarmenak, eta zehapenak; hau da, zerbitzua eten egitea baldintza horiek betetzen ez dituzten

enpresentzat. Nafarroako Gobernuak aukera paregabea dauka lan prekaritatea desagerrarazteko haren finantzaketaren mendeandauden sektoreetan.

4. LANAREN BANAKETA: LANALDIA MURRIZTEA SOLDATA MURRIZTU GABE. Langabeziaren hazkundera produktibitatearen hazkunderaren eskutik heldu da, enpresen soberakinetera doana. Hau da, aberastasunaren banaketan gero eta txikiagoa da lan errenten zatia, eta hori enpresen eta kapitalaren errenten mesedetan doa. Lanaldia 35 ordura jaitea, soldata murriztu gabe, enplegua sortzeko politika da, eta guztiz da egingarria, aberastasun-banaketa bidezkoagoa onartzen bada. Beharrezkoa da, gainera, lanaren banaketa aztertzea, hala ekoizpen-lanaren banaketa nola ugalketa-lanarena.
5. SOLDATAK KPIaren GAINETIK IGOTZEA ETA GIZARTE ESTALDURA DUINAK. Enplegua sortzeak halaber lotura dauka ondasunak eta zerbitzuak erosteko gaitasunarekin. Enplegurik ez bada, eta lan-baldintzak gero eta okerragoak badira, ezinezkoa da ondasunak eta zerbitzuak erosteko gaitasuna eragitea. Esportazioan oinarrituriko ereduak ez du berdinduko barne-kontsumoaren gainbeherak eragindako enplegu-galera. Nori erosiko diogu, diru-sarrerarik ez badugu? Horregatik, suizida da, termino ekonomikoetan, soldatak eta gizarte prestazioak murrizteko politika egitea. Frogatua dago soldaten nahiz gizarte prestazioen ahalmena hobetzea lagungarria dela enplegua sortzeko, eta halaber, errenta era bidezkoagoan banatzen laguntzen du.
6. GUTXIENKO SOLDATA DUINA ETA GEHIENEZKO ERRENTA BAIMENDUA EZARTZEA. Gutxieneko soldatak tresna bat izan beharko luke, lan- eta bizi-baldintza duinak bermatzeko. Baina, Espainiar Estatuan ezarritako zenbatekoa (655,2 euro hilean; 764,4 euro, aparteko ordainsariaren zati proportzionala kontuan hartzen bada) ez da inola ere nahikoa. Askoz ere txikiagoa da, gainera, Frantzia, Herbehereetan, Irlandan edo Belgikan ezarritako zenbatekoa baino; hots, 1.400 euro baino gehiago, edota Luxenburgoko zenbatekoa baino, 1.800 euro. Era berean, garrantzitsua da gehieneko diru-sarrera baimendu bat ezartzea, aberastasunaren izugarritzko pilaketa eragozteko. Hori justizia soziala baita, eta halaber, demokrazia, eta gure planeta errespetatzea (mugak ezarri behar zaizkio planeta finituaren harraparitzari). Badira hainbat bide aldarrikapen hori gauzatzeko; adibidez, % 100eko tasa marjinal bat ezartzea, errenta edo etekin maila jakin batetik gora.
7. POLITIKA INDUSTRIALA. Finantzaketa bermatu behar da (inbertsioak, I-G-B edo zirkulatuak), etorkizuna duen proiektu eta produktu bat duten enpresentzat. Bestalde, sektore estrategikoak zehaztu behar dira, eta sektore horiek bultzatzeko plan zehatzak garatu. Ezinbestekoak dira proiektuak eta planak, produktu osagarriak eskaintzen dituzten enpresen arteko sinergiak bultzatzeko:

- Instituzioen eginkizun aktiboa bitartekaritza-lanak egiteko eta etorkizuna arriskuan duten enpresentzako kapitala lortzeko.
 - Enpresak nazioartera ateratzen laguntzeko prozesuak lagundu eta dinamizatzea.
 - Enpresa txiki eta ertainei buruzko plan zehatzak abian jartzea.
 - Inbertsioari eta garapenari buruzko gogoeta-prozesu bat irekitzea, kontuan hartuta gizartearen zerbitzuan jarri behar dela diru publikoarekin bultzatzen dena.
8. ENPLEGU BERDEAK BULTZATZEA. Funtsezkoa da jarduera iraunkorak bultzatzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik. Egunetik egunera, gero eta agerikoagoa da zeinen premiazkoa den egungo ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredua aldatzea. Datu bat emanen dugu, horren erakusgarri: atmosferako CO2 mailak jada 400 partetik gora daude milioi bat partikula bakoitzeko (eta kalkuluen arabera, gehieneko maila onargarria 350 da). Sakondu nahi izan gabe, esan dezagun enplegu asko sor daitezkeela arlo hauetan: energia berriztagarriak, hondakinak kudeatu eta tratatzea, lurzorua leheneratzea, nekazaritza ekologikoa (eta lehen sektorearen eta gainerakoen arteko erlazioa), kutsadura kontrolatu eta prebenitzea, etab.
9. AZKEN URTEOTAN PENTSIOETAN IZANIKO ERREFORMAK ATZERA BOTATZEA. Azken erreformek erretiro-adina atzeratu dute (67 urtera arte), pentsio berrien zenbatekoa murriztu dute, eta erosahalmena galtzea eragin dute. Erretiro-adina atzeratzeak gazteen langabezia handitzea dakar berarekin. Hortaz, beharrezkoa da murrizketetan atzera jotzea, eta pentsio-sariak duintzea, langabezia murrizten laguntzeko. Kontratu guztiek Gizarte Segurantzaren kotizatu behar dute.
10. ENPLEGUA MANTENTZEA. Lan-erreformek lan-malgutasuna handitu dute; hau da, enpresaburuak bere kasa erabakitzen du hori. Horren ondorioz, kaleratze kopuruak gora egin du, eta enplegua prekarizatu da. Malgutasun handiagoaren eraginez, langabeziak gora egin du; beraz, hori ikusita, beharrezkoa da lan-eskubideak hobetzea eta azken urteotan enpleguan eta negoziazio kolektiboan onetsitako erreformak atzera botatzea, eta hori beharrezkoa da, enplegurik ez suntsitzeko eta baldintzak hobetzeko. Horren haritik, garrantzitsua da ez onartzea inor kaleratzerik ekonomia, antolaketa edo ekoizpen arloko arazoak direla medio, baldin eta enpresek irabaziak badituzte edota aurreko urteetan irabaziak izan badituzte.

Lined writing area consisting of 30 horizontal dotted lines for text entry.

OHARRAK

A series of 26 horizontal dotted lines for writing notes.